

## TESTUINGURU HISTORIKOA:

### NAFAR TRADIZIOTIK EUGIKO FABRIKARA

**Erdi Arotik** burdingintzarako tradizio handi eta erreferentea zuen Nafarroak, inguruko basoen aberastasun natural eta mineralaz gain, ur oparutasuna eta bertako biztanleen nortasun langile eta sendoari esker(1). Burdindegi hidrauliko aurreindustrial familiarak ziren, elementu nagusienak labea, gabia eta gupil hidraulikoa izanik; sistemaren motorra ur-kanala zen, burdindegiak erreka ertzetan egotearen arrazoi. (2) (3)

Halakoa zen **Eugi**, 1492tik kasko eta armaduren produkzioan aritzen zen burdindegia, 1536an Espainiako Koroak erosi zuena bertan munizioa fabrikatzeko asmotan, errentagarritasun faltagatik alboratu zuen arren handik urte gutxitara.

XVIII. mendean, Amerikako aurkikuntzaren ondorenetan, industria iraultza betean eta monarkia Borboitarrek bultzaturik **Fabrikari Errealak** sortuko dira Espainian. Hauek landa industria tradizional batetik eredu ekonomiko, kontzeptu espazial berri batera pasatzea eta katean produzitzea ahalbidetuko dute, era horretan inportazioak ekidin eta ekoizpen eta ekonomia estatalaren garapena bultzatzea asmo izanik. Fabrika Errealak administrazioko arkitektoek diseinatu eta garatzen zituzten eta beira, zeramika eta seda bezalako garairako luxuzko alorrez gain elikagai eta industria textiletaraino ere zabaldu ziren; fabriketan ez ezik, inguruko komunikazio sare eta azpiegiturretan ere modernizazio handiak egin ziren. (4)

Arma fabrikaren kasuan, bereziki, iraultza Frantsesak eraginiko askatasun kontzientziak eta Estatu Batuen sezesioak, besteak beste, Espainiar kolonia diren herrialdeak euren independentziaren alde borrokatzea bultzatuko ditu, eta honi aurre egiteko beharrezkoa izango da **Arma industria** eraginkor eta produktibo bat.

Testuinguru berri honetan eta Eugiren produkzioa berreskuratzeko asmotan, multzoak zuen utzikeria maila, inguruaren abertetasun naturala eta irisgarritasun zailtasunak aztertzea bidalia izango da A. J. Braus, garaian Artilleria Errealeko Komandantea zena. Bere txostena erabakigarria izan zen Eugi Fabrika Erreal bihurtzeko oniritziarako, eta ondorioz, 1723an fabrika berbiarazi zen.

Berreraikitze eta teknologia inbertsio handiak egin ziren fabriketan eta honen irisgarritasunean, 1766an martxan jarri zelarik, **manufaktura Frantsesen** eredu argia jarraituz. Elementu industrialetan eta honen espazioa banatzeko eran Encyclophedie industriala jarraitzen zuen, **fase produktiboen** arabera antolakuntzatik langileentzako etxebizitza tipologietaraino.

### ORBAIZETARA LEKU-ALDATZEA

1784an, Eugiko bi labeek inguruko baso-masa agortzeko zorian zuten eta fabrika lekuz-aldatzeko Orbaizetako proposatuko da, tradizio siderurgikoa eta kokapen pribilegiatu bat eskaintzen zituena.

Nafarroako Blanca Erreginak 1432ko maiatzean eman zuen bertan kokatuko zen Larraun burdindegiaren instalaziorako baimena, baita inguruko Iratiko baso eta burdin mehatzeak ustiatzekoarena ere. XVIII. mendean oraindik funtzionamenduan jarraitzen zuen, Ornanoko Kondea eta Echaz-ko Bizkonde titulua zuten bi noble frantsesen gidaritzapean. (5)

Koroaren teknikarien iritzia bikaina izan zen, beraz, Carlos III.ak Larraun burdinola eta Aezkoako bailararen mendien eta baliabide naturalen guztien jabetza eta probetxamendu eksklusiboa lortu zituen. Bailarako biztanleei bertan garatzen zituzten abeltzaintza, nekazaritza eta gainerako jarduerak aurrera eramatea debekatu zitzaizkien horrela, eskubide hau 1846an berreskuratu arte.

Eugiko fabrikatik 7 legoatara eta Iruñeatik 10-ra kokaturik egoteaz ezik, inguruko meatze, baliabide hidrauliko eta Iratiko basoak apartak ziren lehengaien berehalako garraiorako. Lursaila paraje baxukoa izanagatik ere Legartza ibaiaren bi ur emari emateko adinakoa zen, bat makinaren mugimendurako erabiliko zena eta bestea egurraren garraio edo produktu amaituaren igortzerako.

Gerra logikei zegokienez, ordea, kokapenak planifikazio akats larri bat zuen, Frantziako mugaren gertutasuna (5 kilometro eskas), fabrikak behin eta berriz erasoak pairatu zituelarik bere garapenean zehar:



#### 1781-84 Burdinola zaharraren egoera

Burdinola hidraulikoaren gailuetatik labea, gupil hidraulikoa, kanala eta hiru presa besterik ez ziren mantendu. Gainontzeko eraikuntzen ez-augarriari zegokienez, egurraren erabilpena nabarmentzen zen harriaren gainetik, eta materiala berrerabilia izan zen.

#### 1784-88 Lehen nukleoaren eraikuntza

Lehen fase batean, elementu aurreexistente eta ibaiaren inguruan oinarritako bizileku eta gune industrialek eraiki ziren. Hurrengo faseetakoak baina txikiagoak eta eraikuntza mailara xumeagokoak izan zirela ziurra den arren, gaur egun ez da fase honen arrastorik. Lacy Kondea, Artilleria Erkidego Errealeko Generala izango da Fabrikaren diseinu eta funtzionamenduen obra zuzendaria.

#### 1788-1794 Bigarren nukleoaren eraikuntza

Fabrikaren plangintza bi adarretan banatu zen, Espainiakoa, ordura arte eraikitakoa zena eta estatu mailako gerretarako produkzioaz arduratzen zena, eta Indietakoa, Itsasoaz haratagoko kolonietan konbatitzeko munizioa sortzen zena. Azken honen plangintza izan zen geroko berreraikuntzetan gailendu zena, maisulan militar bat.

#### 1800-08 Konbentzio Gudaren Osteko Berreraikuntza eta Handitzea

1794ko urrian, Konbentzio gerraren ondorioz, Frantziako armadak fabrika bere osotasunean suntsitu zuen. 1800ko irailean hasi ziren berreraikuntza lanak eta azken handitzea, ia alferrikakoa izan zena, Frantsesek 1808 urtean berriz ere erasotu baitzuten fabrika.

#### -Independentzia gudaren osteko konponketak

Napoleonen aurkako gerra amaitzerakoan fabrika asko hondatu zen eta fabrikaren jarduera etenik egon zen 1816tik 1829ra. Jarduera eta ekoizpen normalarekin jarraitu zuen 1834an Zumalakarregiren tropen konkistara arte. 1839an, berriz ere Espainiako gobernuaren eskuetan berreraiki zen, eta fabrikaren garai oparo eta belikoena iritxi zen. 1869an sortu zen sute batek Arma Fabrika Errealaren behin betiko gainbehera eta itxiera ekarri zituen.